

Gasteizen “World Press Photo 2013” prentsa-argazkilaritzako lehiaketako 154 irudi ikusi ahalko dira

Gasteizen ez ezik, Espainiako beste bi hiritan egongo da ikusgai, Madrilen eta Bartzelonan

Garai bateko ur biltegian –sarrera Montehermoso jauregitik du– jarri da erakusketa, eta urriaren 15etik azaroaren 13ra arte egongo da zabalik.



Hamaikagarrenez segidan, prentsa-argazkilaritzaren arloko lehiaketarik garrantzitsu eta zaharrena, World Press Photo, Gasteizen ikusi ahalko da, eta oraingoan leku bereziki aiposean erakutsiko da, 2005ean bezala: garai bateko ur biltegian –sarrera Montehermoso jauregitik du–.

Lehiaketa horrekin lotutako zenbakiak harrigarriak dira. 56. edizioan 103.000 argazkitik gora aurkeztu dira, 124 herrialdetako 5.666 prentsa argazkilarik eginak.

Epaimahaiak, AP (Associated Press) agentziako lehendakariorde eta argazkilaritza zuzendari Santiago Lyon iparramerikarra buru zela, 10.000 irudi aukeratu zituen lehenengo txandan. Prozesu luze baten ondoren, Montehermoson ikusiko dugun erakusketan bildutako 154 irudiak aukeratu ziren; aurten 45 herrialdetako 100 ingurutan erakutsiko dira, munduko hiriburu nagusietan, besteak beste.

Argazkiak 9 ataletan banatzen dira: argazki irabazlea, gaurkotasuneko albisteak, gaurkotasuneko gaiak, gai garaikideak, eguneroko bizimodua, erretratuak eta ingurunea, erretratuak oro har, natura, eta kirolak. Guztira 54 argazkilari dira, 33 nazionalitatekoak.

“Gazako hileta” deritzote aurtengo sari nagusia –10.000€– irabazi duen argazkiari. Paul Hansen prentsa argazkilari suediarra da egilea, “Dagens Nyheter” egunkarikoak. Beste hedabide batzuetan lan egiteaz gain, lau urtez freelance aritu zen New Yorken. Paul Hansen Stockholmen bizi da, eta zazpitan jaso du Suediako urteko argazkilaria saria. Saritutako argazkia 2012ko



azaroaren 20an hartu zuen, Gazan (Palestina). Aurreko egunean, israeldarren hegazkin eraso batek Hijazi familiaren etxea suntsitu eta bi seme eta aita hil zituen. Ama eta beste lau ume larri zauritu zituzten. Hurrengo egunean egin zen hileta, eta argazkiak segizioa kale estu batetik igarotzen ari zen unea jasotzen du: aurrealdean, osabek Suhaib –bi urtekoa– eta Muhammand –lau urtekoa– iloben gorpu meztituak daramatzate; bigarren planoan, Fouad aitaren gorpua ikusten da.

EDITORE GRAFIKOENTZAKO OHARRA: WPPk bereizmen handiko 19 irudi eskaintzen ditu, erakusketarekin lotutako albisteetan argitaratu ahal izateko. Ikus baldintzak argazkiei erantsitako dokumentuetan. Esteka:

<ftp://ftp.servage.net>

Username: wpp_press

Password: FUH2reW

Vitoria-Gasteizen, 2013ko arriaren 15ean

El certamen de fotoperiodismo “World Press Photo 2013” regresa a Vitoria-Gasteiz con 154 imágenes

Vitoria es, junto a Madrid y Barcelona, una de las tres ciudades por donde discurrirá la exposición en España

La muestra, instalada en el antiguo depósito de aguas del Palacio Montehermoso, se podrá visitar entre el 15 de Octubre y el 13 de Noviembre



Por décimo primer año consecutivo, el certamen de fotoperiodismo más prestigioso y veterano del mundo, World Press Photo se muestra en Vitoria-Gasteiz, en este caso en un espacio especialmente propicio, donde ya fue instalado en 2005: el antiguo depósito de aguas del Centro Cultural Montehermoso.

Un año más, las cifras que genera este concurso son espectaculares. Muestra de ello es que a esta edición, la número 56, se han presentado más de 103.000 fotografías, realizadas por 5.666 reporteros gráficos pertenecientes a 124 países.

Finalmente el jurado, presidido este año por el norteamericano Santiago Lyon, vicepresidente y director de fotografía de AP, Associated Press, seleccionó en una primera ronda 10.000 imágenes. Tras un largo e intenso proceso resultaron ganadoras las 154 imágenes presentes en esta muestra que podemos contemplar en Montehermoso y que ese año recorren casi 100 ciudades de 45 países, entre ellas las principales capitales mundiales.

La presente exposición consta de 154 imágenes divididas en 9 secciones: Foto ganadora, noticias de actualidad, temas de actualidad, temas contemporáneos, vida cotidiana, retratos en el entorno, retratos en general, naturaleza y deportes. Estas fotos corresponden a 54 fotógrafos de 33 nacionalidades.

Este año la foto ganadora absoluta, premiada con 10.000€, se conoce en el gremio como “El entierro en Gaza”. Su autor es el reportero gráfico sueco Paul Hansen del diario de aquel país “Dagens Nyheter”. Anteriormente trabajó en otros medios y fue freelance en Nueva York



durante cuatro años. Paul Hansen, que reside en Estocolmo, recibió el galardón de fotógrafo del año en Suecia en siete ocasiones. La imagen premiada fue tomada el 20 de noviembre de 2012 en la ciudad palestina de Gaza. El día anterior un ataque aéreo israelí destruyó la casa de la familia Hijazi y mató a dos niños y al padre. La madre y otros cuatro hermanos resultaron gravemente heridos. Al día siguiente se llevo a cabo el funeral, momento que capta la cámara, cuando la comitiva pasa por un callejón con los cuerpos amortajados de Suhaib de dos años de edad y de Muhammand de cuatro, portados por sus tíos. El cadáver del padre, Fouad se aprecia en segundo plano.

ATENCIÓN EDITORES GRÁFICOS: WPP pone a su disposición 19 imágenes en alta resolución para ser publicadas en informaciones relativas a esta exposición. Ver condiciones en los documentos adjuntos a las fotos. Acceso en este enlace:

[Servidor de fotos](#)

Username: wpp_press

Password: FUhU2reW

Contacto para información complementaria:

Paco Valderrama Telf: 649 297 910

En Vitoria-Gasteiz a 15 de octubre de 2013